

BALOREZKO PROPOSAMENA

GURE ARAZOA

Azken batean, energiekin zerikusia duen guztia gai garrantzitsua den egoera batean gaude. Gai horiek egunero aurkitzen ditugu albisteetan, eta azken aldiko arazoan eragilerik handienetako bat da. Elektrizitatearen kostu handia dela eta, jende asko saiatzen da bere faktura elektrikoa hilaren amaieran kostu txikiagokoa izan dadin lortzen. Horregatik, askok energia modu berdean eta eraginkorrean lortzeko moduak bilatzen dituzte. Hala ere, askotan aukeratzen diren aukerak ez dira optimoak edo lortzen duten eraginkortasuna ez dira onenak. Honekin batera egoera bakoitzari egokitu daitekeen energia mota, desberdina izan daiteke bezero bakoitzarentza eta arrazoi horregatik energia lortzeko prozesu bat ez du efizientzia berdina izango eremu desberdineta. Hori dela medio ingurua aztertu, ikertu eta aukerarik onena eskaintzen duen enpresa bat, eta erabiltzaile bakoitzarentzako optima berriztagarri mota etorkizuna da.

Aholkularitza energetikoa eskaintzen dugu. Energia berriztagarriari buruzko era guztietako gaiak konpontzen saiatuz. Era berean, kasu bakoitzerako energia-motarik eraginkorrena zein den adierazten duen aukera pertsonalizatua eskaintzen dugu

Gure enpresak erabiltzailearen eskaera jaso eta aztertu egiten du. Ondoren, berriztagarri mota hori non kokatuko den ikertzen hasten da, ingurumen-faktoreak, egoera ekonomikoak, faktore klimatikoak... ikertzen ditu. Energia lortzeko prozesuaren eraginkortasunari eragiten dioten faktore garrantzitsuenak aztertu ondoren, gure gauzek egoera aztertzen dute eta bezeroari aukera ekonomikoena, eraginkorrena eta bezeroaren eskaeretara egokitzen den aukerarik onena eskaintzen diote. Azkenik, gure enpresak kolaborazioei esker, fabrikazio-prozesuaz, instalazioaz eta mantenuaz arduratzen diren enpresa ugari eskaintzen dizkio bezeroari.